

ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA VASCA «JULIO DE URQUIJO»

International Journal of Basque Linguistics and Philology

XLV-1

2011



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

© “Julio Urkixo” Euskal Filologia Mintegi-Institutua / Instituto-Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»

ISSN.: 0582-6152. Depósito legal / Lege gordailua: S.S.-400/1967

1619. URTEAN SEVILLAN ARGITARATURIKO BERTSOAK: *CANCION EN LENGUA VASCONGADA O VIZCAYNA QUE CONTIENE LA SUSTANCIA DESTE SERMON*

Koldo Ulibarri Orueta

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

Laburpena*

Artikulu honetan 1619an Sevillan argitaraturiko poesia bat aurkezten dugu, testu garrantzitsua bere goiztasunagatik baina batez ere bere hizkera motagatik, euskal dialektologiako zenbait baieztapen berrikustera baikaramatza. Lehenengo atalean testua non aurkitu dugun azaltzen da eta bigarrenean poemaren metrikaz eta edukiaz ohar batzuk ematen ditugu. Ondoren testuaren edizioa dugu (§ 3), hau ulertzeko interesgarri jo ditugun oharrez lagunduta (§ 4). Bosgarren atalean hizkeraren zenbait ezaugarri aztertzen ditugu, testua nongoa izan daitekeen argitzeko bidea irekiz, eta hurrengo atalean (§ 6) azterketaren ondorioak laburtzen ditugu. Amaitzeko, testuaren hiztegia eta adizkitegia ditugu (§ 7), edizioaren lagungarri izan daitezen.

Abstract

This article presents a Basque poem published in Seville in 1619. It is a very significant text, not only because of its early release, but most importantly because of the language it uses, since it leads us to question some assertions of Basque dialectology. The first section explains where the poem was found, and the second deals with the poem's metrics and content. This is followed by a critical edition of the text (§ 3), together with some remarks of interest (§ 4). The fifth section analyses certain features of the language of the poem, which give some indication of its origin, and the next section (§ 6) summarises the conclusions of this analysis. The last section features a glossary and a verb table (§ 7), which can be useful for comprehension.

* Lan hau Eusko Jaurlaritzak emandako ikertzaileak prestatzeko beka baten laguntzarekin burutu da. Horretaz gain Joseba Lakarrak zuzendu eta Espainiako Hezkuntza ministerioak finantziaturiko “Monumentae Linguae Vasconum (III)” [= FFI2008-04516] eta “Monumentae Linguae Vasconum (IV)” [= FFI2012-37696] ikerketa proiektuen barruan egin da eta Eusko Jaurlaritzak finantziaturiko “Lingüística histórica e historia de la lengua vasca” [GIC.IT 486-10] ikerketa-talde kontsolidatuaren lanen artean kokatzen da.

Bestalde, lan honek ez luke hemen duen itxura Blanca Urgellen eta Joseba Lakarraren ohar eta hobekuntzengatik ez balitz. Eskerrik asko Manu Padillari ere, bere azken orduko oharrengatik. Nola ez, honek ez du esan nahi testuan leudekeen akatsetan parte hartu dutenik: hauek lerrook idazten dituenari bakarrik egotzi ahal zaizkio.

Sarrera

F. Altunak gaztigatu zigunez, “Bonaparte, Vinson, Dodgson, Urquijo eta beste hainbatek bazterrak ondo miatuta utzi zituztenez gero, inor gutxi pentsatu du, honezkero, euskarazko liburu zahar ezezagunik aurkitzea posible denik” (2006: 47); hala ere, bere artikuluan argitaratzen duen poesiak erakusten digunez, badugu oraindik aurkitzerik euskal testuren bat han-hemenka sakabanatutako erdal liburuetan, eta haxe da lan honetan aurkezten duguna, xvii. mendeko euskal corpusa emendatzeko eta osatzeko beste harribitxi bat.¹ Testuaren beraren aurkikuntza ere hura bezain bitxia izan da: beste kontu bategatik *Catálogo Colectivo del Patrimonio Bibliográfico* [CCPB] web orrian euskal liburu baten bilaketa egiteko *vasco* jarri nuen ‘liburuaren hizkuntza’ atalean, eta garaia jarri behar nuenean xviii. mendean bilatu beharrean xvii. mendea bilatzea pentsatu nuen, ea zer gertatuko: eta hara non testu honen berri izan nuen.²

1. Poemaren liburua

Poema hau 1619an argitaraturiko liburu batean aurkitzen da, honen hitzaurre izateko edo egina. Liburuak, garaian ohikoa zenez, honako izenburu luzea du: *Sermón del día y fiesta de la invención de la Santa Cruz: predicado en el colegio del Ángel de Carmelitas Descalços de Sevilla*. Inprimatzailea Alonso Rodríguez Gamarra izan zen, bere inprenta-oinaren arabera *frontero de la Carcel de los Alcaldes* zena. CCPBren arabera ale bakarra gordetzen da Sevillako unibertsitateko bibliotekan.³


Sermoiaren egilea Fray Domingo de Santo Tomás dugu, karmeldarren Ecijako konbentuaren abadea, eta jakin ahal izan dugun guztia liburuaren portadan agertzen zaigun informazioa da, alegia, Gipuzkoako probintzian dagoen *Passage* hiribildukoa dela. Dena dela, ez dirudi abade hau denik euskal testuaren egilea, bertsoen izenburuak baitio ...*hecha* [la canción] *por vn Religioso de la misma nacion, y aficionado del Autor*, hots, bere adiskide batek egina. Berriz, ‘nazio’ hitzak ez dirudi Gipuzkoari erreferentzia egiten dionik, bere euskaldun izaerari baizik; izan ere, euskal testuan zehar “Bizkaia” bakarrik aipatzen du, baina ez Jaurerriari dagokiola, dirudienez (eta garaian ohikoa zenez), hiru probintziak izendatzeko baizik (tartean *Placencia* ere —Soraluze— aipatzen du).

¹ Hala ere, aurkikuntza hauek duten balioari muzin egin gabe, esan behar dugu euskal filologok ere nahi adina lan badugula, Euskal Herriko eta hemendik kanpoko liburutegi eta artxiboetan lehenagotik ezagutzen ditugun lanak bai baitira, nor bertan murgilduko zain (cf. Lakarra 2004).

² Norbaitek esango du aurkikuntza egin baino gehiago zortea izan duela hau idatzi duenak, eta ez diot ezetzik esango, baina bai gogoratu margolari bati inspirazioa existitzen zen ala ez galdetzerakoan honnek erantzundakoa: «inspirazioa existitzen da, baina lanean aurkitu behar zaitu».

³ Desde aquí quisiera agradecer a Eduardo Peñalver, encargado del área de fondo antiguo de la Biblioteca de la Universidad de Sevilla, tanto por facilitarme de forma inmediata una copia del texto en euskera, como por la información dada sobre el libro en cuestión.

SERMON
 DEL DIA Y FIESTA
 DE LA INVENCION DE
 LA SANTA CRUZ: PREDICADO
 en el Colegio del Angel de Carmelitas
 Descalços de Sevilla.



POR EL MUY REVERENDO PA-
 dre Fray Domingo de Santo Tomás, Prior del Convento de
 Ecija de la dicha Orden: natural de la villa de
 Passage, en la Prouincia de
 Guipuzcoa.

Año



1619.

CON LICENCIA.

Impresso en Sevilla, Por Alóso Rodriguez Gamara,
 frótero de la Carcel de los Alcaldes.

2. Poema: metrika eta edukia

Gure poesia hain ohikoak diren lauko txikietan eginda dago: 7-6-7-6 egitura du eta bertso lerro bikoitzak dira errima daramatenak. Metrika hau ohikoa dela esan dugu, ezagutzen ditugun garai eta gai honetako bertso askok honela taxuturik daudelako: Iruñean sarituriko Portalen poesia, Iturberen laukoak, Mikoletak dakartzan baztuk...

Edukiaren aldetik, hasieran Tubalen mitoa azaltzen du, eta zehazki Tubal Bizkaira (hau da, Euskal Herrira) etorri zenez bizitzera eta bertan izan zituenez umeak, Noe Euskal Herrira maiz etortzen zela familia ikustera. Hortik egileak ondorioztatzen du Noek ekarri zuela fedea eta erakutsi zuela dotrina Euskal Herrian, eta fedea hain sustraiturik egotea dela bertan juduak, mairuak eta moriskoak sartu ez izanaren arrazoia. Ondoren (8. laukotik aurrera) Euskal Herriak Espainia guztitik mairuetatik ihesi etorritakoak gorde eta salbatu zituela kontatzen du.

11. ahapalditik aurrera, basko-kantabrismoaren mitoaren oihartzunak dakartza, alegia, erromatarrak Euskal Herrian ezin izan zirela sartu; honen arrazoia Euskal Herriko burdina dela uste du egileak, eta bidenabar xvi. mendean burdina horrekin egiten ziren produktuen kalitatea eta Euskal Herriko herri zenbaitetan (Bilbo, Elorrio, Soraluze) zeuden arma fabriken maisutasuna gogoratzen du. Gero sermoiaren gaira hurbiltzen da (gogoratu liburuaren izenburuaz: *Sermón del día y fiesta de la invención de la Santa Cruz*), gurutze santuak bizkaitarren garaipenetan izan zuen lekua erakutsiz.


3. Edizioa

Ez gara mugatu testuaren transkripzioa ematera: testuko hutsak zuzendu ditugu, beti bezala oharrean emanaz aldaketaren berri. Grafia bere horretan mantendu dugu; hala ere, irakurketa argitze aldera aldaketa txiki bat egin dugu, *v / u* eta *i / j* letra bikoteak banaketa modernora ekarri, alegia; inork jatorrizko banaketa ikusi nahiko balu faksimilera jotzea baino ez luke. Testuko ezaugarri formalak (puntuazioa, letra larrien eta xeheen erabilera, hitz banaketa...) egungo arauen arabera aldatu ditugu, ohi bezala inolako oharrik gabe. Izenburuko erdal pasarteak ere modernizatu dugu, tartean azentuera ere egungo legeen arabera aldatu.

Cancion en lengua Vasconga-

da, o Vizcayna, que contiene la sustancia de este
Sermon, hecha por vn Religioso de la
misma nacion, y aficionado
del Autor.

A La ordenaturiq;
gure langoycoa;
ain sinacoa;
gente Vizcaycoa;
Vizcayan layoistran,
Tubalen humeaq;
visitatul situan,
Noe agureaq;
Vrruniq; etorrifan,
femea ecustera
Vizcayan ilobaequin
atseguin arcaera.
Ay tea ona debe
a la doctine
Maestru onarequin
ango escolca.
Eracustendebe
Ienaengo gaucea
Iaun aren leguearequin,
ceruco bidea
Fedeaq, echatuditu
sustayaq, andiaq,
fedean conserbatu
Vizcayco vriaq,
Vizcayan yshan esteu,
lecuriq, Iuduaq,
Maruaq, guichiago,
eta Moriscuaq,
Sorei libratu situan,
Noeren arqueaq,
Espania gustia
Vizcayco genteaq,
Marvaren yguesfi
ango socondoan,
Vizcayaq, gordeditu
bere colcoan.
Vizcayan gordessenda
Christoren fedea
Maruaq, venciisco,
gente dulabrea.
Erroman yssandusan,
asco triumphoriq,
baterc ez yrabalsi,
Vizcayco genteriq,
Millares bidalsen ditu,
Erromaq, genteaq,
gustiaq, rebatissen
Bilbaoco espatea;
Soldadu asco dator
Zaldi armatuaq,
corpusaq, armaturiq,
galçayruz buruaq,
Tannaq,



Canción en lengua vascongada o vizcayna

*que contiene la sustancia deste sermón,
hecha por un religioso de la misma nación y aficionado del autor*

Ala ordenaturiq
gure Jangoycoa,
ainsinacoaq dira
gente Vizcaycoa.

- 5 Vizcayan jayo siran
Tubalen humeaq,
visitatu situan
Noe agureaq.

- 10 Urruniq etorri san
semea ecustera,
Vizcayan ilobaequin
atseguin arçæera.

- 15 Aytea ona debe,
ala doctrinea,
maestru onarequin
ango escolea.

- 20 Eracusten debe
lenaengo gauçea
Jaunaren leguearequin
ceruco bidea.

Fedeaq echatu ditu
sustayaq andiaq,
fedean conserbatu
Vizcayco uriaq.

- 25 Vizcayan yssan esteu
lecuriq juduaq,
maruaq guichiago
eta moriscuaq.

- 30 Sorci libratu situan
Noeren arqueaq,
Espania gustia
Vizcayco genteaq.

- 35 Maruaren yguessi
ango socondoan,
Vizcayaq gorde ditu
bere colcoan.

Vizcayan gordessen da
Christoren fedea,
Maruaq venciseco
40 gente dulabrea.

Erroman yssandu san
asco triumphorik,
batere ez yrabassi
Vizcayco genterik.

45 Millares bidalsen ditu
Erromaq genteaq,
gustiaq rebatissen
Bilbaoco espateaq.

Soldadu asco dator,
50 Zaldi armatuaq,
corpusaq armaturik,
galçayruz buruaq.

[2]

Jaunaq criatu ceban
Vizcayan burdina,
55 armahaq eguiteco
galçayru⁴ gordina.

Elorrion eguiten
millares lanceaq,
punta sorrotsarequin
60 guessiaq, ascoeq.

Placencian eguiten
gogorra mosqueta,
ballesta galçayruscoez⁵
gentea armassen da.

65 Eta falta ez dira
machetaq sorrotsaq,
Jaunaq eman sien
ligeraq corpusaq.

Onela defendissen
70 Vizcayco erria,
Erromaren contra
debe victoria.

⁴ *galçairu*: orig. *galcairu*.

⁵ *galçayruscoez*: orig. *galcayruscoez*.

- Banderan dacardela
 curuça santua,
 75 Vizcayco genteoneq
 ondo bordatua.
- Aen armaaq dira
 curucea, trabajua,
 80 curučan daduquela
 euren descansua.
- Guerran bayce ez daquie
 beyn ere egoten,
 guerraco trabajuaq
 dituez erosten.
- 85 Christoren curuceaq
 Vizcayan lecua,
 lenaengo yssandu da
 an adoratua.⁶
- 90 Virginea yssandu çan
 Christoren cerua,
 aren çabel⁷ dichossoa
 da Paradisua.
- An egondu san
 santuen santua,
 95 Aytea ycusten deu
 Espiritu Santua.
- Christoren curutcearen
 lenaengo lecua
 Vizcaya yssandu çara
 100 montaña santua.
- Curutçea⁸ largassen
 gentilaq, juduaq,
 baya adorassen
 Vizcayco pobluaq.
- 105 Jaquin nay badessu
 nola ygaro san
 eracutsico dissut
 sermoe onetan, &c.

⁶ *adoratua*: r tipoa alderantziz dago.

⁷ *çabel*: orig. *cabel*.

⁸ *Curutçea*: orig. *Curntçea*.

4. Oharrak

1 *Ala*: Euskal Herri osoan erabiltzen da, bizkaierazko sartaldeko lekukoetan izan ezik (baina bai sartaldeko bizkaieran), non *alan* dugun; Lazarragarenean ere forma hau erruz aurkitzen dugu (OEH s.v. 1 *hala*).

1 *ordenaturiq*: *-atu* partizipio formak baino ez ditugu mailegutan: *visitatu* (7), *conserbatu* (23)... Hots, ez dago testuan mendebaldean (Bizkaian, Araban) mailegu berrienetan ohiko den *-adu* formarik.

2 *gure*: cf. *bere* (36), *Aen* (77), *euren* (80) eta *aren* (91). Izenordain arrunten eta indartuen erabileran, *gure* testuak ondo betetzen ditu Linschmann-Aresti legearen printzipioak; hau da, aditzean izenordainaren erreferentzia islatuak agertzen bada, forma indartua darabil egileak (*bere*, *euren*), eta islatuak ez dugunean forma arrunta (*aen*, *aren*, *gure*).

2 *Jangoycoa*q: OEHren arabera (s.v. *Jaungoiko*) aldaera hau bizkaieraz eta goina-farreraz lekukotzen da, bigarrean *jaungoiko* orokorrarekin batera, baina hau baino maizago. Araban Betolazak *Jaungoiko* baino ez dakar, bai eta Lazarragak ere.

3 *ainsinacoa*q: Testu honek *ain-* diptongodun formaren lehen agerpen data aurretatzen du, orain arte Muniberen obretan baikenuen lekukotasunik zaharrena (OEH s.v. *antzina*); hala ere, goizen agertzen zaigun forma diptongo gabea da, Lazarragaren *antxina* alegia. Txistukariaz, Bizkaiko autoreek, Lazarragak bezala, gehienetan *tx* darabilten bitartean, Gipuzkoan *tz* da ohikoena (dirudenez Larramendiren hiztegiak gero, ik. Urgell 2005).

Bestalde, egileak afrikatuak adierazten ditu, ez beti ordea (ik. 12 *atseguin* oh.); baina aipagarria da, testuaren txikitasunean, hemen bezalako *n*, *l*, *r* + *txistukari* testuingurua duten hamar adibideetan ez egotea inoiz afrikaturik: *arçæra* (12), *bidalsen* (45)... beste testuinguruetan ez bezala: *atseguin* (12), *sorrotsaq* (66), *curutçea* (101). Honek adieraziko luke testuinguru honetan neutraltzea frikariaren aldekoa zela, ekialdeko hizkeretan bezala (cf. FHV 290) eta frikari eta afrikatuak grafikoki bereizten dituzten mendebaldeko lekuko zahar bakanetakoetan, Landucciren hiztegia eta *RS*-etan, bezala.

4 *gente Vizcaycoa*q: cf. *ballesta galçayruzcoez* (63); baina *ceruco bidea* (20), *Vizcayco uriaq* (24), *Vizcayco genteaq* (32)... *-ko* genitiboaren hitz ordena zaharra, izenaren ondoren, eta berria, izenaren aurretik, dugu *gure* testuan, baina ehuneko ezberdinetan; izan ere, ordena zaharra hemen eta *ballesta galçayruzcoez* (63) adibidean gordezten den bitartean, hitz ordena berriak hamaika adibide ditu.

4 *gente*: Bizkaiko eta Zuberoako tradizioko forma izateaz gainera, *-nt-*dun aldaera hau Lazarragarenean eta Otxoa de Arin gipuzkoarrean ere badugu, bai eta xvi. mendeko Lapurdiko gutun batzuetan ere (OEH s.v. *jende*).

4 *Vizcaycoa*q: Garaiko joerari jarraiturik, poema honetan *Vizcaya* hitzak ez dio bakarrik Jaurerriari erreferentzia egiten: Frantzia eta Ingalaterra aldean, besteak beste, *vizcaino euskaldun*-en baliokide da (cf. Urteren gramatikaren izenburua: *St Jean de luz dela Prouince de Labour dans la Cantabric françoise ditte vulgairement pais de basque ou bizcaye. Escalherria ou bizcaya*; Urte ca.1714). Mugaz hegoaldera, ordea, egun *EAE* osatzen duten hiru probintziei egiten die erreferentzia, lantzean behin Nafarroa ere barruan dela (cf. Juaristi 1991: 131; adibidez, Cervantesen *Kixoteko VIII.* eta *IX.* kapituluetak *Sancho de Azpeitia* pertsonaia dugu, beti 'vizcaíno' bezala aipatua).

5 *siran*: Adibide honek adierazten duenez, idazlearen hizkeran txistukari frikarien neutralizazioa aurreratua zegoen (cf. § 5), hitz hasiera baita oposaketa hobekien mantentzen duen testuinguruetakoa bat (cf. *FHV* 282, Lakarra 1996: 197 eta orain Atutxa 2011): cf. *situan* (7), *sorci* (29), *socondoan* (34)...; gainera, hiperzuzenketa ere badugu testuinguru honetan: *çabel* (91). Bestalde, hemen ez dugu mendebaldean espero genezakeen *sirean* forma (Irigoién 1958: 131).

6 *Tubal*: Testua lehenagotik datorren baina XVI-XVII. mendeetan biziki hedatuko zen mitologiaren isla dugu, Tubal agertzen baitzaigu euskaldunen aitatzat (cf. Tovar 1980). Deigarria da Bibliaren aurkako okerra: izan ere, Tubal Noeren semetzat hartzen du egileak (*urruniq etorri san semea ecustera*).

6 *humeaq*: *h*-ez, ik. Mitxelena 1979 eta Ulibarri 2010.

7 *situan*: *-it-* pluralgilea erabiltzen du egileak, mendebaldeko testu zaharretan ere espero bezala. Testuan *-it-* izan arren pluralgilerik erabiliena **edun*-en adizkietan, *-z*-ren adibide bat ere badugu, *dituez* (84) forma pleonastikoan; forma pleonastikoa hauek baditugu dagoeneko mendebaldeko (bizkaierazko eta araberazko) lekuko zaharretan (*RS*, *IC*, Betolaza, Lazarraga...); ik. 84 *dituez* oh.

9 *urruniq*: *-(r)ik* ablatiboaren adibide bakarra testu osoan; garai honetako Bizkaian *-(r)ean* forma espero genuke, Araban bikoiztasuna dugun bitartean: Landucciok eta Lazarragak *-(r)ean* dute maizenik; Betolazak, ordea, *-(r)ik* baino ez dakar.

10 *ecustera*: cf. *arçæera* (12). Helburuzko predikatuan adituzena adlatiboan dago testuan, ekialdean bezala, eta ez inesiboan. *e-* aurrizkiaren formari erreparatuz, aldaera zahararen eta berriaren adibide bana dugu testuan: *ycusten* (95).

11 *ilobaequin*: Mendebaldeko *-kin* / *-gaz* atzizkien artean hemen *-kin* baino ez dago, hala pluralean (hemen bezala) nola singularrean: *onarequin* (15), *leguearequin* (19), *sorrotsarequin* (59). Bestalde, erroa eta atzizkiaren artean sortzen den bokal elkarketa bakundu gabe dago oraindik.

12 *atsequin*: Txistukari afrikatuak grafikoki adierazteko ardura nabari zaio egileari, nahiz eta sistematikoki ez egin: *sorrotsarequin* (59), *curutçea* (101) (baina *curucea* 78); *n*, *l*, *r*, ondoko txistukarien izaeraz, ik. 3 *ainsinacoaq* oh. Azpimarratzekoa da Iparraldean ohikoak ziren grafemak baliatzen dituela (<ts>, <tç>, <tc>), XVIII. mendera arte bereizketa egiten ahalegindu ziren idazle bakanak ez bezala (Landucciok <çç>, Zumarragak <cz>, Garibaik <sh>, etab.), baina mendebaldeko Poza, *RS* eta ekialderagoko Isasti gipuzkoarra edota Iruñeko poesiak eta Berriain nafarrak bezala.

12 *arçæera*: Mendebaldeko lekukoetan aurkitu ohi dugun aditz-izenak sortzeko atzizki ugaritasunaren ordez (Urgell 2006), hemen bi atzizki orokorrak baino ez ditugu, *-te* eta *-tze(e)*, eta azken honen aldaera da hemengo *-tzae* (*hartu*-k, CVC erroa izanik, *-tzaite* egiten du mendebaldeko beste lekukoetan), dagoeneko Lazarragarenean lekukotua (Urgell 2006: 930).

13 *Aytea*: cf. 95. *a + a > -ea* disimilazioa, mendebalde oso zabal bateko (Bizkaia, Araba, Goierri eta Nafarroako mendebaldeko) ezaugarria: *doctrinea* (14). Azkuek bere garaian ahaide izenekin (*ama*, *aita*...) artikulua erabiltzen ez zela esan arren, testu zaharretan baditugu honen adibideak mendebalde osoan: *VJ*-n, Bet, Kap...

13 *debe*: 'dute'. Orainaldiko NOR-NORK laguntzailearen formarik erabiliena testu honetan *deu-* da: *debe* (13, 17), *esteu* (25), *deu* (95); hirugarren pertsonatik kanpo, ordea, *-e-* erroa dugu testuko adibide bakarrean: *badessu* (105). *-eu-* bokalismoak —eta pertsonen arteko *-eu-* (3p) / *-e-* (gainerakoak) alternantziak— diosku testua

ez dela bizkaierakoa, euskalki eta garai honetan *-au-* baitugu, eta testua Arabara edo ekialderagoko hizkera batera (nafarrera, gipuzkera) lerratzen du.

Bestalde, NORK aktantearen 3. pertsonaren plurala *-e* da, ez ekialderagoko *-te*, ezta Bizkaiko sartaldeko *-de* ere.

18 *lenaengo*: ik. baita 87 eta 98. lerroak ere. Hemengo *-ae-* bokalismoarekin *RS*-n eta Lazarragarenean baino ez du lekukotzen *OEH*-k (*s.v. lehenengo*); esanahiaren alde-
tik, adibide hau ‘printzipala’ dela irizten dugu, eta ez ‘lehendabizikoa’ (ik. lexikoia).

19 *Jaunaren*: Genitibo guztiak *-r-*dunak dira gure testuan, hala singularrak nola mugagabeak: batetik, *Maruaren* (33), *aren* (91) eta *curutcearen* (97) eta bestetik *Noeren* (30), *Christoren* (38, 85, 90, 97) eta *Erromaren* (71). *-r-* gabeko adibide bakarra *Aen* (77) dugu, erakusle plurala izanik espero bezala. Honek jatorria bizkaieratik eta Arabako mendebaldetik (Betolaza, alegia) kanpo bilatu behar dugula pentsatzera garamatza.

19 *leguearequin*: Bi modutara uler dezakegu bertso hau: edo “lenengo gauza, Jaunaren legearekin zeruko bidea erakusten dute” interpretatu, edo *X-ekin Y* egituraren adibide baten aurrean gaudela suposatu, bertsoa honela ulertuta: “erakusten duten lenengo gauza: Jaunaren legea eta zeruko bidea”.

21 *echatu*: *OEH*-k xvii. mende hasieran lekukotzen du hitz hau, baita ‘sustraiak bota’ hemengo adiera berarekin (*s.v. etxatu* 2); hala ere, *OEH*-k dakartzan adibide guztiak Iparraldekoak dira; beraz, hau dugu garai hartako Hegoaldeko adibide bakarra.

22 *sustayaq*: *OEH*-k ez du lekukotu *sustrai* hitzaren *-r-* gabeko aldaerarik (*s.v. sustrai*). Zaila da erabakitzen errata den edo ez: gogoan har genezake, forma ezezagun honen alde, *-tr-* hots segida ez dela batere ohikoa euskaraz ondare zaharreko hitzetan hitz honezaz kanpora.

24 *uriaq*: *Hiri* hitzaren mendebaldeko (Bizkaiko, Gipuzkoako sartaldeko, Arabako eta Errioxako) aldaera dugu hemen.

25 *yssan esteu*: cf. *falta ez dira* (65). Ezezko esaldietan hitz ordena zaharrari eusten dio egileak, hau da, *aditz nagusi + ez + aditz laguntzaile* hitz ordenari (cf. *guc ajutu ez dugu* glosa famatua eta ik. Lakarra 1986: 655).

27 *maruaq*: cf. *maruaq* (39) eta *maruaren* (33); *OEH*-k ez du forma monoptongatu hau testuetan aurkitu (guztiak *mai-* edo *mau-* ditugu); hala ere, *Marulanda* eta *Maruelexa* toponimoak aipatzen ditu *maru* forma horren berme gisa (gure testuak berresten duen bezala).

27 *guichiago*: *gutxi* hitzaren aldaera Bizkaian eta Araban, azken euskalki honetan *gutxi*-rekin batera, eta baita Azpeitia inguruan ere (*OEH s.v. gutxi*); hauetaz aparte, Isastik ere *gitxi* aldaera dakar bere atsotitzetan.

29 *Sorci*: Bibliaren arabera, Noeren arkak zortzi pertsona salbatu zituen uhaldetik, Noe, emaztea eta euren hiru semeak emazteekin (Gen 6): egileak simil bat egiten du arkaren eta Bizkaiairean artean, Bizkaia ere Espainia guztiaren salbatzaile dela adieraziz.

33 *yguessi*: *Ihesi* hitzaren aldaera, hegoaldean erabiliena *OEH*-ren arabera (*s.v. ihes*). Lazarragak *ies* ere badu (baita *Lcc*-k ere), eta bizkaieraz zenbait egilek *iñes*, are testu zaharrenetan (*RS*) ere.

34 *socondoan*: *OEH*-k dakarren ‘rincón’ adiera ondo datorkio *zokondo* hitzaren lehenengo lekukotasun honi, orain arte bizkaieraz baino ez lekukotua, xix. mendeko testuetatik aurrera (Mogel eta Añibarro) (*OEH s.v. zokondo*).

37 *gordessen*: esan bezala (12 *arçæera* oh.), aditz-izenak sortzeko atzizki orokor biak baino ez ditugu: *-te*, *-i* eta *-n* (eta txistukari amaierako?) partizipioekin, eta *-tze* beste partizipio mota guztiekin: hemen bezala partizipio irregularrekin edo mailegu berrieekin: *venciseco* (39), *armassen* (64), *largassen* (101)...

Txistukari afrikatuen neutraltzea aurreraturik dago, jadanik esan bezala (ik. 59 *so-rrotsarequin* oh.); hala ere, gure ustez merezi du aipatzea *-tze* atzizkiaren zortzi adibideak apikaria adierazten duten <s>-z eta <ss>-z daudela: bai bokal artean *s* bikoitzaz (*largassen*, *adorassen*...) eta baita ozen ondoan *s* bakarraz (*bidalsen*).

40 *dulabrea*: Azkuek “pertsonea energética” bezala itzuli zuen eta Mogelek ere antzeko esanahia eman zion (“de mucho remango”), gure adibidearekin ondo ezkon-tzen direnak. Gutxi dokumentaturiko hitza dugu honako hau, bestalde: testu zaha-rretan *Egiaren Kantan* eta Mogelen *Peru Abarkan* baino ez (OEH s.v. *dulabre*).

41 *Erroman*: Hemen egileak basco-kantabrisismoaren mitoa jasotzen du; hau da, iturri klasikoen arabera erromatarrek Penintsula konkistatu zutenean aurre egin zien bakarrak kantabroak izan eta gure testuaren garaiko historialariek (gehienbat Euskal Herrikoek) euskaldunekin lotzen zituzten kantabro horiek (cf. Tovar 1980: 48 e. hh.).

41 *yssandu*: cf. *yssandu* (87, 89, 99) eta *egondu* (93). *-du* partizipio marka hedatuz joan den heinean, aditz zaharrei ere erantsi zaie, forma pleonastikoak sorturik. Honelako formak xvii. mende hasieratik lekukotzen dira gipuzkeraz eta goi-nafarreraz (OEH s.v. *izan*); hauei arabarra bide den Portal ere gehitu behar zaie (*egondu*), bai eta Landucci ere (*erabildu*, *viçitu*, *yldu*).

42 *asco triumphoriq*: cf. *Soldadu asco dator* (49). *Asko* zenbatzaile zehaztugabea partitiboarekin, egun *eskerrik asko* esapidean bakarrik aurkitzen duguna, garai batean nahiko erabilia zen: cf. *Gomizek asko lagunik, eskutaririk asko*... Lazarragarenean egiturarik erabiliena dugu (OEH s.v. *asko 1*). Tradizioan zenbatzailea bietara kokatzen da, izenaren aurretik edo ondotik, eta gure testuko hizkeran aukera biak ditugu: adibide honetan bezala izenaren aurrean eta izenaren ondoren 49. lerroko *soldadu asco* adibidean. Bestalde, *asko*-ren bi adibideetan aditza singularrean dago, espero bezala xvii. mendeko testu batean (hala ere, Lazarragak pluralarekin ere badakar) (*ibidem*).

43-44 *batere*... *genteriq*: Egileak kuarteta honetan hitz ordena egokitu behar izan du errima egin ahal izateko. Beraz, honela interpretatu behar dela uste dugu: ‘Erroman izan zen triunfo asko, [*baina*] ez [*zuten*] batere irabazi Bizkaiko jendea’, non *genteriq* hori *-(r)ik* partitibo markarekin dugun.

45 *Millares*: cf. *millares* 58. *Milar(e)* gutxi dokumentatzen da gure tradizioan: *Lcc* eta xvii. mendeko gutun batean lekukotzen du OEH-k, eta *milarez* aldaera Zuzaeta-ren obran (xviii-xix. mende bitartean) (OEH s.v. *milar(e)*). Hemen ere, Zuzaeta-renean bezala, badirudi ‘milaka’, ‘erruz’ esanahia duen adberbioa dela.

48 *Bilbaoco espateaq*: Erreparatu *Bilbao* forma zaharra darabilela egileak. Bilboko ezpatez hitz egitea ez da kasualitatea, izan ere xvi eta xvii. mendeetan oso ezaguna baitziren Bilboko ezpatak euren kalitateagatik: garaiko literaturan askotan aurkitzen da “la [espada] de Bilbao” esapidea, are Ingalaterrako literaturan ere (Shakespeare idazle ezaguna barne) (Dueñas Beraiz 2001: 270); Bilboko ezpaten izen ona erakusten dute Segoviako ezpata-saltzaileek ere, 1536ko euren ordenantzetan Toledoko ezpaten pare jartzen baitituzte (*ibidem*: 271). Honezaz gainera, erreparatu anakronismoari: izan ere, xvi. mendeko armak jartzen ditu antzinako kantabroen eskuetan.

51 *corpusaq*: cf. 68. Hasierako herskari ahoskabea Hegoaldean nahiko ondo dokumentaturik dago Zubiaren dotrinatik aurrera, baina beti ere *gorputz* aldaera orokorra baino gutxiagotan (*OEH s.v. gorputz*).

52 *galçayruz*: Protesidun aldaerak gipuzkeraz eta bizkaieraz lekukotzen ditu *OEH*-k, lehenengo euskalkian *g*-dunak eta bigarrean *g*- eta *k*-dunak (*s.v. altzairu*). Lazarragaren adibide bat badakar *k*-rekin. Protesi hauen inguruan ik. *FHV*: 252.

53 *ceban*: Mendebaldean lehenaldiko NOR-NORK aditz laguntzailearen 3. pertsonaren ezaugarria *ø*- den arren, honelako *z*-dun adibideak aurkitzen dira gaur egungo Deba ibarrean, bai eta XVII. mendean arabarra izan daitekeen Iturberen lanean ere (Zuazo 2006: 1016).

54 *burdina*: *OEH*-k hau diosku hitz honen aldaeren hedaduraz (*s.v. burdin*): “La forma más extendida es *burdina*, propia tanto del vizcaíno como de los dialectos septentrionales, salvo el suletino (y Tartas), donde se emplea *bürdü(i)ña*. Los escritores guipuzcoanos usan *burni(a)*, forma que se encuentra tbn. en los alto-navarros Isasti y Beriaín. Se atestigua *burri(n)a* en Lizarraga de Elcano, Añibarro y (*burri(n) gori*) en un texto del s. XVIII escrito por Gamiz, alavés afinado en Navarra.”

55 *armahaq*: cf. *armaaq* (77). Absolutibo pluralean bokal bikoitzak aurkitzen dira mendebaldeko testu zaharretan. Bizkaiera zaharrea bokaldeko lekukoetan mantendu ziren gehien: Kapanaga eta ondorengo Oñatiko eskuizkribua, f. Bartolome, Astarloa, Mogel...; baina baditugu sartaldeko *VJ*-n ere (lehenago *RS*-n eta *IC*-n): cf. *FHV* 111. Araban, ordea, bietara ditugu: Lazarragak bokal bikoitzak dituen bitartean (salbuespen batzuk gorabehera, cf. Bilbao *et al.* 2010: 19, *verbaac* oh.) beste lekukoek (Bet, Lcc, Portal...) ez.

Hemen dugun <h> letrak ez du ahoskera islatzen (cf. *armaaq* 77), erabilera grafiko bat baino ez du, hiatoak markatzeko, alegia. Erabilera hau, dagoeneko testu zaharragoetan ere lekukotua (*RS*), garaiko beste testuetan ere aurkitzen dugu, Beriaínen liburuetan eta garai bertuko bide den *VJ*-n (Ulibarri 2010).

56 *galçayru gordina*: Hau da, ‘altzairu gogorra’ (cf. *OEH, s.v. gordin* 2).

57 *Elorrio*: Dirudienez Elorrio hiri garrantzitsua izan zen lantzak egiteko artean: bertako artisauen lanek fama handia zuten XVI-XVII. mendeetan, testu honek islatzen duen bezala (cf. Hualde 1927 eta Azpiazu 1994).

58 *lanceaq*: Mitxelenak dioskunez, mendebal zabal batean gertatzen den *a + a > -ea* disimilazioa nominatiboari dagokionez singularrean baino ez da gertatzen (cf. *FHV* 114); gure testuan, ordea, pluralean dugu hemen, errimak behartuta, non-bait.

59 *sorrotsarequin*: cf. *sorrotsa* (66). *-kin* atzizkiaz, ik. 11 *ilobaequin* oh. eta txistukari afrikatuaren adierazpen grafikoaz, 12 *atsequin* oh. Bestalde, afrikatuaren neutraltzea ere bidean zegoela (frikarien neutraltzeaz ik. 5 *siran* oh.) erakusten digu adibide honen; izan ere, *gurutçea* (101) adibidearen aurrean hau eta lehenago aipaturiko aditzizenak (ik. 37 *gordessen* oh.) baititugu. Dena dela, aipagarri iruditzen zaigu neutralduriko afrikatuak apikariaren grafiaz adierazten dituela eta ez (mendebaleko euskalkietan espero bezala) lepokariarenaz (cf. hala ere, Mikoletaren *osic* ‘hotzik’ edo *aserrenço* ‘atzerrenço, azkeneko’).

60 *ascoeaq*: *azkon* hitzaren aldaera, Lcc-ren *azcoya* aldaerarekin bat datorrena (cf. *sermoe - sermoi, leoe - leoi, jamoe - jamoi*...; *FHV* 147). Hitz honen adibide gutxi daude euskal testu zaharretan (erdal testuetan baditugu, ordea: *Dexaron se matar a*

golpe de azconas Berceorenean, adibidez), eta *OEH*-k Larramendi osteko adibideak baino ez ditu (*OEH s.v. 1 azkon*).

-oe- bokal bilkurak noizbait sudurkaria izan zuen (cf. *FHV* 48), eta garai bertuko Kapanagak oraindik markatzen du; ez gure testuak, ordea, garaiko testuetan ohi den bezala, bere grafia sisteman ez baitzuten horretarako baliabiderik (*FHV* 49). Testuak dakarzkigun adibide parearekin (honako hau eta *sermoe* 101) ezin dugu zehaztu ezau-garri hau testuko hizkeran bazegoen ala ez.

61 *Placencian*: *Placencia de las Armas*, egun Soraluze bezala ezagutzen den herria. Soraluzeko mosketeak zuten ospea Garibayk aipatzen du dagoeneko (Azpiazu 1994: 14, 3. oh.).

62 *mosqueta*: cf. *machetaq* (66). *-a + a > -ea* disimilazioak eraginda, *-a* eta *-e* amaieradun hitzen berranalisia dugu hemen. Cf. testu honetan bertan *curuça* (74) < *curucea* (78).

65 *falta ez dira*: Hitz ordenaz, ik. 25 *yssan esteu* oh.

67 *eman*: Bizkaierazko testuetan *emon* dugu forma orokorra, *emun* aldaerarekin batera, baina Araban hiru formak aurkitzen ditugu: *eman*, *emon* eta *emun* (*OEH, s.v. eman*). Lazarragak hirurak darabiltza eta Betolazak eta Albenizek *emon* (baina *ematea*) dute (eta Landuccik *emon*, baina *emaitea*).

67 *sien*: cf. *dissut* (107). Gure testuan *-i-* erroa bakarra da indikatiboko NOR-NORI-NORK laguntzaitzat. XVI-XVII. mendeetako zenbait euskalkitan erro aniztasuna zegoen, gaur egun euskalki bakoitzak laguntzaile honetarako erro bakarra hautatu duen arren. XVI. mendean *-i-* erro hau (euskara baturako hautatu dena) mendebaldean ere erabiltzen zelako arrastoak ditugu Garibay-ren baladak eta *RS* erretrauek bezalako testu arkaikoek erakusten digutenez (beti hirugarren pertsonan, ez dute hemen bezalako *dizut* formarik, cf. 107 *dissut* oh.). Araban, bestalde, luzarago mantendu zen *-i-* erroa, sortaldean bederen, eta Lazarragandik (honetan *eutsi* eta *eradun* erroekin batera) XVIII. mendeko Gamizen eta Albenizen lanetara aurkitzen ditugu (hauetan ere *eutsirekin* lehian); jatorri ezezaguneko Portalek eta Iturbek ere *-i-* badarabilte: lehenengoak NOR-NORI-NORK adibide bakarra du erro honekin, eta bigarrenak *eutsirekin* batera.

Bestalde, “Jaunaq eman sien ligeraq corpusaq” esaldi honetan NOR-en plural komunztadurarik ez dugu, Arabako eta Gipuzkoako zati bateko testu zaharretan ere bezala (Lakarra 1996: 188).

69 *Onela*: ik. 1 *Ala* oh. Gure testuan forma orokorra dugu, dagoeneko Lazarragarenean bezala (*OEH s.v. honela*).

70 *erri*: Hitz honek ‘lurralde’ adiera zaharra mantentzen du testuan. Esanahi adaketa hau XVII. mende bukaeran hasi zen gauzatzen hegoaldean, gure testua baino zaharrago den Lazarragan dagoeneko aldaketaren adibiderik (ehuneko oso txikian, hala ere) topa dezakegun arren (*OEH s.v. herri*).

72 *debe*: ‘dute’, formarako ik. 13 *debe* oh. Adibide honetan Hegoaldean arkaitzotzat jo dezakegun **edun* aditzaren erabilera dugu; izan ere, adiera trinkoa dugu, ‘eduki’, garairako mendebaldean galbidean zegoena; hala ere, oraindik aztertzeke dago galbidearen nondik norakoak.

73 *dacardela*: *Ekarri* aditzean *-de* pluralgilea nahiko erraza da aurkitzen Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako testuetan (*Egiaren kanta*, Añibarro, Zabala, Barrutia, Otxoa Arin...). *Dute* eta *die* aditzetan diren *-te* eta *-e* pluralgileen jatorritzat jotzen den *-*de*

forma mantendu dela suposatuz azal genezake, han-hemenka bestelako adizkietan bezala: *daude* (< **dagode*, Araban *daode*), *zarade*, *gabilzade* (dagoeneko Lazarragak lekukotuak) NOR argumentuaren pluralgile bezala eta sartaldeko bizkaierazko *daude* ‘dute’ NORK argumentuaren pluralgile. Hala ere, aipagarria da *dakardela* adibideaz kanpo, beste guztiak bokal artean eta ozen ondoan direla; beraz, forma honen azpian beste arrazoiren bat egon daitekeela ezin dugu albo batera utzi.

75 *genteoneq*: *-oneq* artikulua edo erakuslea den erabakitzea ez da erraza, eta tesuingurua ikusita, bietara interpreta dezakegu: edo deiktikotzat (hots, erakusle) edo hurbiltasuna emateko baliabidetzat (artikulu). Artikulu hurbilak antzina Euskal Herri osoan erabiltzen ziren, *OEH*-k dioen bezala (*s.v. hau*): “Lo hallamos en algún autor septentrional antiguo como Harizmendi [...], en Lazarraga, en alto-navarros meridionales como Beriain, Lizarraga, etc., y, con mayor persistencia, en vizcaínos (aunque en el s. xx empieza a escasear también en éstos)”.

77 *Aen*: ‘haien’; genitibo pluralekoa dugu, espero bezala, *-r*-gabea; ik. 19 *Jaunaren* oh.

79 *dadukuela*: *OEH*-ren arabera, “las [formas] del tipo *daduka* son las más frecuentes al Norte (y prácticamente las únicas que encontramos en los ss. XVI y XVII), apareciendo también en algunos autores guipuzcoanos y alto-navarros.” (*OEH s.v. eduki*).

80 *euren*: Izenordain indartu eta arruntez, ik. 2 *gure* oh.

81 *bayce*: *baizen* formaren *-n* gabeko aldaerak Hegoaldeko testu zaharretan dugu; gure forma zehatza Araban XVI. mendean lekukotzen den Don Jakob-en heriotzaren testuan (*TAV* 145) eta Lazarragarenean, Gipuzkoan Azpeitian eta Zegaman, eta $j + z > (j)x$ legearen bidez sortzen den *baxe* aldaera Lazarraga eta Mikoletaren testuetan (*OEH s.v. baizen*).

81 *daquie*: ‘dakite’. Nork argumentuaren pluralgileaz ik. 13 *debe* oh.

84 *dituez*: ‘dituzte’. Adizki pleonastiko bakarra testu guztian (ik. 7 *situan* oh.), mendebaldean erruz aurki ditzakegun arren testu zaharrenetatik.

84 *erosten*: Poemaren laukorik ilunena; gure ustez hau litzateke interpretazioa: ‘ez dakite inoiz [geldi] egoten gerran baizik, gerrako lanek salbatzen dituzte’, (cf. *OEH, erosi* 2, ‘rescatar, redimir’).

90 *Christoren*: Genitiboaz, ik. 19 *Jaunaren* oh.

91 *çabel*: Txistukariaren neutraltzeaz, ik. 7 *situan* oh.

94 *Santuen*: *-nt*-dun aldaera mendebaldeko forma arrunta litzateke, Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan lekukotzen duguna; Nafarroako idazleek, ordea, *sandu* forma erabiltzen dute (*OEH s.v. santu*).

95 *dew*: **edun* aditzaren erroez, ik. 13 *debe* oh.

96 *Espiritu Santua*: Ahapaldia iluna da esanahiaren aldetik; guk honela ulertzen dugu: ‘An [= *Birjinaren sabelean*] egon zen Santuen Santua [= *Kristo*]. [*Kristok*] aita ikusten du, [eta] *Espiritu Santua*.’

99 *çara*: Mendebaldeko eta Nafarroako aldaera dugu hau, Gipuzkoa aldeko testuetan *zera* dugun bitartean. Nahiz Arabako euskaran normalean *zara* kausitu, arabarra izan daitekeen Iturberen poeman *zera* dago.

100 *montaña*: Hitz honek euskal tradizioan agerpen apur batzuk baditu: Landucciok hiztegian bildu zuen, eta Kapanaga zein Baztango testuetan ere agertzen da (*OEH s.v. montaña*).

103 *baya*: ‘baina’. Forma hau orokorra da bizkaiera zaharrean XIX. mendera arte; horrezaz gainera, Arabako Lazarragarenean formarik erabiliena da (*baina* eta *baña*-rekin batera), eta baita aurkitzen dugu hala nafarrerazko Beriainengan eta Iruñeko poesietan, nola erronkarieraz eta zaraitzueraz ere (*OEH s.v. baina*).

104 *pobluag*: ‘herri, jende’ adieradun hitz hau gehien bat Iparraldeko autoreetan topatzen dugu, baina ez da adibiderik falta Hegoaldeko lekukoetan ere: bizkaierazko *Bertsu Bizkaitarrak*, gipuzkerazko *Bretañako kantua*, Nafarroako zenbait testutan...

105 *badessu*: Hirugarren pertsonetarako ik. 13 *debe*. -e- erroa gipuzkerazkotzat hartu bada ere, ez da honen adibiderik falta hortik kanpo, Arabako lekukoetan, zehatzago: gehienetan -o- (Betolaza) edo -u- erroekin (Gamiz) lehian (Lazarragarenean hiru aukerak baditugu). Portalek ordea, gure testuko egoera dakar: hirugarren pertsonetan -eu- (*deu, deue*) eta bestelakoetan -e- (*deçu*). Landuccirenean: *deu- (deben)* baina *dut, duk, duzu...* eta *du*.

106 *nola*: -n gabeko formez, ik. 1 *Ala* eta 69 *onela* oh.

106 *ygaro*: Aditz honen aldaerei buruz, cf. “La forma *igaro* es casi general en guipuzcoano, y en vizcaíno es prácticamente la única documentada hasta finales del s. XVII y frecuente desde entonces.” eta “*Irago*, documentado ya en Landucci, Lazarraga (que usa tbn. en alguna ocasión *igaro*), y Nicolás de Zubia, es la única variante que encontramos en el s. XVIII (*msOñ* (235r), Arzadun, Barrutia, Urquizu, Gamiz (206)).” (*OEH s.v. igaro*).

107 *dissut*: -i- erroaz, ik. 67 *sien* oh. NOR-NORI-NORK -i- erroa hirugarren pertsonetako adizkiekin aparte erabiltzen da, nolabaiteko bizitasuna bazuela erakutsiz.

108 *sermoe*: Latinezko -one bukaerak euskaraz aldaera asko eman ditu, hauen artean hemen dakusaguna (*FHV* 147), normalean bizkaieratzat joa, baina Arabako lekukoetan ere baduguna; sudurkaritasunaz, ik. 60 *ascoeaq* oh.

5. Testuko euskaraz ohar batzuk

Oharretan testuaren ezaugarri aipagarrienak aztertu ondoren, atal honetan ezaugarriok baliatuko ditugu nongo hizkera izan daitekeen antzematen saiatzeko. Ez dugu gaia agortzeko asmorik, ez itxaropenik, testuak geografikoki kokatzeak dituen arazo eta aldagaiez jakitun baikara, baina ahalegina egitea merezi duelakoan gaude, ondoko ikerlarien mesedetan edota ager daitezkeen testu berriak kokatzeko lagungarri.

Grafiari dagokionez, azpimarratuko nuke hitz amaieran <q> erabiltzen duela. Iparraldeko hastapenetako grafiak aztertu dituen Mujikak -q hau “grafia zahar” bezala aipatzen du, baina bere jatorriaren azalpenik eman gabe (Mujika 2002: 179). Hegoaldeko tradiziozko grafia zaharrak oraindik aztertu gabe dauden arren, ezaguna da zenbait testutan, hala nola Amiletaren dotrinan, Martin Iturberen kuartetetan, *Enojaduric* amodio kantuan...

Txistukarietara joz, nahiz Hegoaldeko testuetan orokorrean frikari eta afrikatuak grafikoki ezberdindu ez, gure testuan bereizteko halako joera bat nabari zaio egileari, txistukari afrikatuen %32an ahoskera afrikatua adierazita baitago;⁹ gainera, bere ga-

⁹ Hauek dira emaitza zehatzak: txistukarien ahoskera afrikatua grafikoki islatuak duten sei adibide ditugu, horrelakorik ez duten 13 adibideren ondoan, betiere dudazko testuinguruak alde batera utzita, hau da, ozen ondoko txistukariak (cf. 3 *ainsinacoaq* hitzari egin oharra).

raian ohiz kanpokotzat jo behar dugun baliabide bat darabil, alegia, <ts> eta <tc>.¹⁰ Afrikatuak mendealdean XVI-XVII. mendeetan grafikoki nola islatzen ziren oraindik behar bezala ikertu gabe badago ere, argi dago, Arabako eta Bizkaiko testuak ikusita, oro har bestelako baliabideak erabiltzen zituztela, ezer erabiltzekotan: Landuccik <şç> (bizkarkaria eta apikaria adierazteko), Zumarragak <cz> (apikaria eta bizkarkaria), Garibaik <sh> (apikaria bakarrik), Madariagak <ss> (apikaria), RS-k <csh>, <cshsz>, <sh>, <shs> (apikaria)... Afrikatuak *t* + *txistukari* erako grafemaz markaturik mendealdeko hiru testutan baino ez ditugu aurkitu: RS-etan (gutxiengo erabatekoan: *lotsaga* eta *etsecoandrea*, 263 eta 259. erretrauak hurrenez hurren), Poza (*Eriotcea*, fol. 34v) eta Mendietaren koadroko idazkian (*jauntçat*); ekialderagoko testuetan (nafarrera, gipuzkera), ordea, afrikatua adierazteko baliabiderik erabiliena hau dela dirudi, Isastin, Iruñeko poesietan edo Beriainengan ikus dezakegunez; baliteke Iparraldeko tradizioaren eraginez izatea, hasieratik bide hori hautatu baitzuen (cf. Mujika 2002: 206).

Bestalde, badirudi egilearen hizkeran txistukariaren neutraltzea oso aurreraturik zegoela, hala frikarietan nola afrikatuetan, eta hau harrigarria da, orain arte berandugoko lekukoetan baino aurkitzen ez zen egoera baitugu honetan. Frikarietan, adibideak baditugu testuingururik errazenetakoa den kontsonante aurrean (*espatea*, *esteu*, *gustia*...), baina baita oposaketa hobekien mantentzen dituzten testuinguruetan ere: hitz hasieran (*siran*, *sien*, *sorrots*..., tartean *çabel* hiperzuzenketa ere) eta bokal artean (*dessu*, *yssandu*, *guessiaq*...); hitz bukaeran ordea, ondo bereizten ditu: *galçayruz*, *galçayruscoez*, *ez*, *dituez*.¹¹ Afrikatuetan ere baliteke neutraltzea egotea. Alabaina, eza-guna denez, mendealdean hedatu den neutraltzea bizkarkariaren aldekoa izan bada ere, gure testuan apikariaren grafiak nagusitzen dira: *armassen*, *sorrotsa*, *gorpusaq*... Mikoletaren testuan bezala: *osic* 'hotzik', *aserrengo* 'atzerrengo'... Neutraltzeak duen indarra argi ikus dadin, taula banatan bildu ditugu adibideak. Taula hauetatik kanpo utziko ditugu ozen ondoko txistukariak, testuinguru honetan frikari/afrikatu oposaketa neutraltzen delako, hizkeren arabera alde batera edo bestera (kasu honetan badi-rudi frikariaren alde egin duela, cf. 3 *ainsinacoaq* hitzari egin oharra):

TXISTUKARI FRIKARIAK		
	<s, ss...>	<z, c...>
/ ś /	35	1
/ s /	25	30

TXISTUKARI AFRIKATUAK		
	<s, ts...>	<z, tc...>
/ tś /	2	0
/ ts /	11	6

¹⁰ Pentsatzekoa da hitz amaieran <tz> ere baliatuko zuela, baina ez dago honen adibiderik.

¹¹ *Millares* hitza litzateke hemen testu osoko neutraltzearen adibide, baina ezin dugu ahaztu inprentakoek izan dezaketen eragina testuan, eta posible izan daiteke hemen erdararen eragina izatea.

Testua kokatzeko orduan, zenbait ezaugarrik mendebaldeko eremura (*mendebal* hitza oso zentzu zabalean harturik) eramaten gaitu; guztietan aipagarriena $a + a > ea$ da, mendebal zabal batekoa, Bizkaia, Araba, Gipuzkoako Deba ibarra eta Goierria eta Nafarroako Burunda eta Lana ibarretako euskaran topatzen duguna (edo genuena). Ere mu hauetara hurbiltzen duten beste ezaugarriak hitz aldaerak dira: *gitxi*, *uri*, *igesi*, aurreko ezaugarria bezain hedaturik ez egon arren. Dena dela, bizkaiera alde batera utzi beharko genuke, zeren eta testuak bizkaierari ez baina beste hizkera bati dagozkion ezaugarriak baititu: *-kin* soziatiboko markak, are singularrean ere, sartaldeko bizkaieraren eremuko testua ez dela erakusten digu, eta atzizki hau sartaldeko bizkaieran erabiltzen den arren, testuko beste ezaugarriek, hala berrikuntzek nola hautuek, bizkaiera laga eta jatorria ekialderagoko hizkera batean bilatzera garamatza: *deu-* (hirugarren pertsona: *esteu*, *debe...*) eta *de-* (bestelakoetan: *desu*) bokalismoak *EDUN-en adizkietan, *-i- erroa NOR-NORI-NORK adizkietan hirugarrenaz bestelako pertsonetan ere (*sien*, *dissut*), *-atu* partizipioa mailegu modernoetan (*criatu*, *ordenatu...*), *-te* eta *-tze* atzizkiak bakarrik (salbuespen bakarra: *arçæra*) aditizienak egiteko, are mailegu berrietan ere (*largassen*, *gordessen...*), *r-dun* genitiboak (*Jaunaren*, *aren...*) eta *-du* partizipio marka berria *-n* partizipioei erantsia (*yssandu*, *egondu*). Hala ere, txistukarien neutraltzea horren aurreratua egoteak harridura sortzen digu, ez baikenen honelakorik itzaroten hain goizik hain ekialdeko hizkera batean (*FHV* 282; hala ere, neutraltzea hirietan lehenago gertatu zela badakigu egun, Lubieta bezalako testuak ikusita, cf. Bilbao 2011: 629; ik. baita ere Atutxa 2011).

Ondorioz, hau guztia kontuan harturik eta garai hartako eta ondorengoetako euskal testuen arabera, ezaugarri hauek guztiak elkarrekin Arabako sartaldean bakarrik aurki ditzakegu, testu hau baino berankorragoak diren Garzia de Albenizen eta Gamizen testuetan eta kokaturik ez dauden baina arabartzat jotzen diren Portalen eta Iturberen poemetan, zehazki. Hala ere, daturik ezean ez dakigu XVII. mendean ekialdeko hizkera hau noraino heltzen zen: baliteke Araba ekialdekoa izatea, baina baita Nafarroakoa ere: izan ere, toponimiak erakusten digu Estellerriko euskarak sartaldeko Arabakoarekin zuen erlazioa (cf. Salaberri 2004). Gogoan har dezakegu, beharbada, liburuaren egilea gipuzkoarra izanik, litekeena dela poemaren egilea ere gipuzkoarra izatea; beraz, Gipuzkoako hegoaldea ere ez da erabat alde batera utzi behar, zenbait ezaugarritan (*deu-debe* baina *dezu*, *gitxi*, etab.) Azpeitiako bariatatearen antza ere baduelarik; alabaina, *egondu* edo *izandu* aditz formak ez dira hizkera hauetan lekukotzen. Dena den, Arabako ekialdekoa, Nafarroako mendebaldekoa zein Gipuzkoako hegoaldekoa izan, ezaugarri zenbaitek atentzioa ematen digute: *uri*¹² bezalako aldaerak eta txistukarien neutraltzean dugun egoera, alegia. Antzeko hizkera bide duten Iturbe eta Portal nongoak diren ez jakiteak ere ez digu asko laguntzen. Ikusten denez, zenbat eta gehiago jakin euskara arkaiko eta zaharraz, orduan eta galderak gehiagotu eta korapiloak handiago.

¹² Adibide honen kasuan, gogoratu behar dugu Nafarroako Lana ibarrean dagoen *Ulibarri* herri ize-nak eman dituen buruhaustekak, berez *iri* aldaera nagusi den eremu batean baitago (herri bera *Ilibarri* edota *Iribarri* bezala lekukotzen da). *Iri/uri* txandakatzear Nafarroako mendebalean, ik. Salaberri 1998: 75.

6. Ondorioak

Honainokoa erakusten saiatu gara testu arras interesgarri batekin egin dugula topo, hemen eskaini ahal izan dioguna baino ikerketa sakonagoa merezi duena. Ordezkatzen duen hizkeraren berezitasunak eta ezaugarrien konbinaketak bide berriak irekitzen dituzte oraindik ustiatu gabeko dialektologia historikoaren ikerlerroetan: izan ere, ezer gutxi dakigu testuaren jatorria bide den eremuko hizkera zaharrez, hots, Arabako ekialdeak, Nafarroako mendebaldeak eta Gipuzkoako hegoaldeak osatzen duten eremukoez, ezer gutxi euren ezaugarri eta bereizgarriez, eta are gutxiago izan duten ibilbideaz. Gainera, eta tamalez, euskara galdua da aspaldi eremu honetako leku askotan arrastorik ia utzi gabe, eta ahalegin gutxi egin dira orain artean bertako (eta orduko) euskarari buruz toponimia eta antroponimiak ematen dituzten datuek —urriak izanik ere erabili beharrekoak— testu apurrek eta bizirik iraun duten hizkerrek dioskutena elkarrekin lotzeko. Hala bada, zenbait datu ezin baliotsuago eskaintzearekin batera, galdera zaparrada bat eta arazo franko sortu ditu, sortu ere, gure tes-tuak. Zorionez, nik uste.

7. Hiztegia eta adizkitegia

Edizioaren lagungarri hemen aurkezten dugu testuko hitz guztien hiztegia, bai eta adizkitegia ere. Lan honek, testua hobeto ulertzeko erremintak emateaz gain, atzetik datozen ikertzaileei bidea errazten dielakoan gaude.

Hiztegia taxutzeko *Viva Jesus* dotrinarekin egin genuena izan dugu gogoan (Ulibarri 2010), Lakarrak lehenagotik egindako lanak eredu eta Sarasolaren *Euskal Hiztegia* eta *OEH* iturri lexikografiko. Lemak gaur egungo grafiara hurbildu ditugu, garaiko ahoskera ahaleginean mantenduz; honela, esate baterako, lemetan ez dira *h*-ak jarri, ezta testuan *h* duten formetan ere. Txistukarietan, neutraltzeak direla eta, erdi-bidean geratu gara: apikariak eta lepokariak testuan dauden bezala eman ditugu lemetan, neutraltzearen egoera islatu dadin, baina *frikari/afrikatu* oposaketa berrezarri dugu, garaian zukeen ahoskeraren arabera (hots, ozen ondoko txistukariak *frikari* mantendu ditugu, cf. 3 *ainsinacoaq* oh.).

Lema eta esanahiaren artean hitzaren kategoria adierazi dugu, eta aditza denean, *da* (iragangaitza) edo *du* (iragankorra) den, testuak horretarako aukera ematen duenean. Sarreraren azpian hitzaren agerpen guztiak eman ditugu testuko grafian, bertso lerro zenbakia alboan duela. Lexikoian zehar erabilitako laburdurak Sarasolaren *Euskal Hiztegitik* hartuak dira.

7.1. Hiztegia

A	adorassen 103; adora-tua 88	aita: <i>iz.</i> Aita. Aytea 13, 95
a: <i>erak.</i> Hura. aen 77; aren 91	agure: <i>iz.</i> Agurea. agureaq 8	ala: nola <i>adlag.</i> Hala. Ala 1; ala 14
adoratu: (du) <i>ad.</i> Adoratu, gurtu.	ainsinako: <i>izlag.</i> Antzinakoa. ainsinacoaq 3	an: non <i>adlag.</i> Han. an 88, 93

andi: *izond.* Handia.
 andiaq 22
ango: *izlag.* Hangoa.
 ango 16, 34
arka: *iz.* Arka (Noerena).
 arqueaq 30
arma: *iz.* Arma.
 armaaq 77; armahaq 55
armatu: (da) *ad.* Armatu.
 armassen 64; armatuaq
 50; armaturiq 51
artu: (du) *ad.* Hartu.
 arçæra 12
asko: *zenbtz. zehaztg.* Asko.
 asco 42, 49
askoe: *iz.* Azkona.
 ascoeq 60
atsegin (artu): *iz.* Atsegina.
 atseguin 12
au: *erak.* Hau.
 onetan 108

B

baia: *junt.* Baina.
 baya 103
baize: *junt.* Baizen, baino.
 bayce 81
ballesta: *iz.* Balezta.
 ballesta 63
bandera: *iz.* Bandera.
 Banderan 73
batere: *zenbtz.* Batere (*ezezko*
esaldietan).
 batere 43
bein: *adlag.* Behin.
 beyn 82
benzitu: (du) *ad.* Irabazi.
 venciseco 39
bere: *izord.* Bere.
 bere 36
? bidaldu: (du) *ad.* Bidali.
 bidalsen 45
bide: *iz.* Bidea.
 bidea 20

biktoria: *iz.* Garaipena.
 victoria 72
Bilbao: *iz. ber.* Bilbo.
 Bilbaoco 48
Birjina: *iz. ber.* Ama Birjina.
 Virginea 89
bisitatu: (du) *ad.* Bisita
 egin, bisitatu.
 visitatu 7
Bizkaia: *iz. ber.* Euskal herria.
 Vizcaya 99; Vizcayan 5,
 11, 25, 37, 54, 86;
 Vizcayaq 35; Viz-
 cayco 24, 32, 44, 70,
 75, 104; Vizcaycoaq 4
bordatu: (du) *ad.* Bordatu.
 bordatua 76
burdin: *iz.* Burdina.
 burdina 54
buru: *iz.* Burua.
 buruaq 52

D

defenditu: (du) *ad.* Babestu
 defendissen 69
deskansu: *iz.* Atsedena.
 descansua 80
ditxoso: *izond.* Zoriontsua.
 dichosoa 91
doktrina: *iz.* Dotrina.
 doctrinea 14
dulabre: *izond.* Saiatua.
 dulabrea 40

E

eduki: (du) *ad.* Eduki.
 daduquela 79
***edun:** (du) *ad.* 1. Indikati-
 boan erabiltzen den la-
 guntzaile trantsitiboa.
 2. Eduki.
 1 badessu 105; ceban
 53; debe 17; deu 95;

ditu 21, 35, 45; di-
 tuez 84; esteu 25; si-
 tuan 7, 29
 2 debe 13, 72
egin: (da-du) *ad.* Egin.
 eguiteco 55; eguiten 57, 61
egondu: (da) *ad.* Egon.
 egondu 93; egoten 82
ekarri: (du) *ad.* Ekarri
 dacardela 73
ekusi: (du) *ad.* Ikusi. cf.
ikusi.
 ecustera 10
Elorrio: *iz. ber.* Elorrio.
 Elorrior 57
eman: (du) *ad.* Eman.
 eman 67
erakutsi: (du) *ad.* Erakutsi.
 Eracusten 17; eracutsico
 107
ere: *adlag.* Ere.
 ere 82
erosi: (du) *ad.* Erosi, berrerosi.
 erosten 84
erri: *iz.* Herria, lurra.
 erria 70
Erroma: *iz. ber.* Erroma
 Erroman 41; Erromaq
 46; Erromaren 71
eskola: *iz.* Eskola.
 escolea 16
Espania: *iz. ber.* Espainia
 Espania 31
espata: *iz.* Ezpata.
 espateaq 48
Espiritu Santua: *iz. ber.* Es-
 piritu Santua.
 Espiritu Santua 96
eta: *junt.* Eta.
 eta 28, 65
etorri: (da) *ad.* Etorri.
 etorri 9; dator 49
etxatu: (du) *ad.* Bota.
 echatu 21
euren: *izord.* Euren.
 euren 80

ez: *adlag.* Ez.
ez 43, 65, 81

F

falta izan: (da) *ad.* Falta izan, faltatu.
falta (ez dira) 65

fede: *iz.* Fedea.
fedea 38; fedean 23; Fedeaq 21

G

galzairu: *iz.* Altzairua.
galçayru 56; galçayrus-coez 63; galçayruz 52

gauza: *iz.* Gauza.
gauçea 18

gerra: *iz.* Gerra.
guerraco 83; Guerran 81

gesi: *iz.* Gezia.
guessiaq 60

gixi: *zenbtz. zehaztgb.* Gutxi.
guichiago 27

gogor: *izond.* Gogorra.
gogorra 62

gorde: (da-du) Gorde.
gorde 35; gordessen 37

gordin: *izond.* Gordina, gogorra.
gordina 56

gure: *izord.* Gure.
gure 2

gusti: *zenbtz.* Guztia.
gustia 31; gustiaq 47

I

*-i-: (dio) *ad.* Indikatiboan hirupertsonako adizkiekin erabiltzen den laguntzailea.
dissut 107; sien 67

igaro: (da) *ad.* Gertatu, jazo.
ygaro 106

igesi: nola *adlag.* Ihesi.
yguessi 33

ikusi: (du) *ad.* Ikusi. (*cf.* ekusi)
ycusten 95

iloba: *iz.* Biloba, seme-alaben semea edo alaba.
ilobaequin 11

irabasi: (du) *ad.* Irabazi.
yrabassi 43

isan: (da) *ad.* 1. Indikatiboan erabiltzen den laguntzaile intransitiboa. 2. Izan.

1 siran 5; san 9, dira 65; da 37, 64, 87; san 41, 93, 106; çan 89; çara 99

2 yssan 25; da 92; dira 3, 77; yssandu 41, 87, 89, 99

isandu: *ik.* isan.

J

jai: (da) *ad.* Jaio.
jayo 5

jakin: (du) *ad.* Jakin.
Jaquin 105; daquie 81

Jangoiko: *iz. ber.* Jaungoikoa.
Jangoycoa 2

jauna: *iz.* Jauna.
Jaunaren 19; Jaunaq 53, 67

jente: *iz.* Jendea.
gente 4, 40; gentea 64; genteaq 32, 46; genteoneq 75; genteriq 44

jentil: *iz.* Jentila.
gentilaq 102

judu: *izond.* eta *iz.* Judua.
juduaq 26, 102

K

Kristo: *iz. ber.* Kristo.
Christoren 38, 85, 90, 97

kolko: *iz.* Kolkoa.
colcoan 36

konserbatu: (du) *ad.* Gorde.
conserbatu 23

kontra: (“-ren”) Kontra,
aurka.
contra 71

korputz: *iz.* Gorputza.
corpusaq 51, 68

kriatu: (du) *ad.* Sortu.
criatu 53

kurutza: *ik.* kurutze.

kurutze: *iz.* Gurutzea.
curucea 78; curuceaq 85; curutcearen 97; Curutçea 101; curuçea 74; curuçan 79

L

lanza: *iz.* Lantza.
lanceaq 58

largatu: (du) *ad.* Lagatu,
utzi.
largassen 101

lege: *iz.* Legea.
leguearequin 19

leku: *iz.* Lekua, tokia.
lecuca 86, 98; lecuriq 26

lenaengo: 1 *ord.* Lehenengo.
2 *izlag.* Lehengoa, printzipala.
1 lenaengo 87, 98
2 lenaengo 18

libratu: (da-du) *ad.* Libratu
libratu 29

? **lijer(a):** *izond.* Arina.
ligeraq 68

M

maestru: *iz.* Maisua.
maestru 15

maru: *izond.* eta *iz.* Mairua.
maruaq 27, 39; Marua-ren 33

matxeta: *iz.* Matxetea.

machetaq 66

millar(e): *zenbatz. zehaztgb.*

Mila, pila bat.

millares 45, 58

montaña: *iz.* Mendia.

montaña 100

morisku: *iz.* Moriskoa.

moriscuaq 28

mosketa: *iz.* Mosketea.

mosqueta 62

N

nai (izan): (du) *ad.* Nahi

izan, gura izan.

nay (badessu) 105

Noe: *iz. ber.* Noe.

Noe 8; Noeren 30

nola: *gald.* Nola.

nola 106

O

on: *izond.* Ona.

ona 13; onarequin 15

ondo: nola *adlag.* Ondo,

ongi.

ondo 76

onela: nola *adlag.* Honela.

Onela 69

ordenatu: (du) *ad.* Agindu,

manatu.

ordenaturiq 1

P

paradisu: *iz.* Paradisia.

Paradisia 92

Plazenzia: *iz. ber.* Soraluze

(*Placencia de las Armas*).

Placencian 61

poblu: *iz.* Herria, populua.

pobluaq 104

punta: *iz.* Punta.

punta 59

R

rebatitu: (du) *ad.* Urrundu,

atzera bota.

rebatissen 47

S

santu: *izond.* Santua. (*cf.* Es-
piritu Santua)

santua 74, 94, 100; san-
tuen 94

seme: *iz.* Semea.

semea 10

sermoe: *iz.* Sermoia.

sermoe 108

sokondo: *iz.* Zokondoa.

socondoan 34

soldadu: *iz.* Soldadua.

Soldadu 49

sorzi: *zenbtz. zehazt.* Zortzi.

Sorci 29

sorrots: *izond.* Zorrotza.

sorrotsaq 66; sorrotsare-
quin 59

?sustai: *iz.* Sustraia.

sustayaq 22

T

trabaju: *iz.* Lana.

trabajua 78; trabajuaq 83

triunfo: *iz.* Garaipena.

triumphoriq 42

Tubal: *iz. ber.* Tubal.

Tubalen 6

U

ume: *iz.* Umea.

humeaq 6

uri: *iz.* Hiria.

uriahq 24

urrun: non *adlag.* Urrun,

Urruti.

Urrunihq 9

Z

zaldi: *iz.* Zaldia.

Zaldi 50

zabel: *iz.* Sabela.

çabel 91

zeru: *iz.* Zerua.

cerua 90; ceruco 20

7.2. Adizkitegia

badessu (105) ik. **edun*

ceban (53) ik. **edun*

da (37, 64, 87, 92) ik. *isan*

dacardela (73) ik. *ekarri*

daduquela (79) ik. *eduki*

daquie (81) ik. *jakin*

dator (49) ik. *etorri*

debe (13, 17, 72) ik. **edun*

deu (95) ik. **edun*

dira (3, 65, 77) ik. *isan*

dissut (107) ik. *-*i*

ditu (21, 35, 45) ik. **edun*

dituez (84) ik. **edun*

esteu (25) ik. **edun*

san (9, 41, 93, 106) ik. *isan*

sien (67) ik. *-*i*

siran (5) ik. *isan*

situan (7, 29) ik. **edun*

çan (89) ik. *isan*

çara (99) ik. *isan*

8. Bibliografia

- Aldai, G., 2012, «Sobre el origen de Martín Portal, autor de la poesía premiada en Pamplona en 1610», *FLV* 114, 93-117.
- Altuna, F., 2006, «Nafarrerazko «Romance bazquenze a la deuocion de Maria Santissima» (1646)», in Lakarra & Hualde (arg.), 47-80.
- Atutxa, U., 2011, *Txistukarien neutraltzeaz*, UPV/EHU-ko master tesi argitaragabea.
- Azpiazu, J. A., 1994, «Fabricación y comercialización de armas en el valle del Deba (1550-1600)», *Cuadernos de Sección. Historia-Geografía* 22, 9-72.
- Bilbao, G., 2011, «Lubieta, izen berri bat euskal testuen historian», in J. A. Lakarra, J. Gorrochategui & B. Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena katedraren II. biltzarra*, UPV/EHU: Gasteiz, 621-649.
- *et al.* (arg.), 2010, *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: 2011/09/20].
- Dueñas Beraiz, G., 2001, «La producción de armas blancas en Bilbao durante el siglo XVI», *Glaudius* 21, 269-290.
- FHV* = Mitxelena 1977.
- Huarte, A. de, 1927, «Las fábricas de Vizcaya y los lanceros de Elorrio», *Euskalerraren alde* 286, 380-386.
- Irigoyen, A., 1958, «Curiosidades y observaciones sobre el dialecto vizcaíno literario», *Euskera* 3, 105-132.
- Juaristi, J., 1991, «La gnosis renacentista del euskera», berrarg. in R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), 1992, *Euskalaritzaren historiaz, I: XVI-XIX. mendeak*, *ASJU*ren Gehigarriak XV: Donostia, 128-172.
- Knörr, H. & K. Zuazo (arg.), 1998, *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketa eta testuak*, Eusko Legebiltzarra: Gasteiz.
- Lakarra, J. A., 1983, «Oharrak zenbait arkaismoz», *ASJU* 17: 1, 41-68.
- , 1984a, «Bizkaiera zaharreko ablatiboaz», *ASJU* 18:1, 161-194.
- , 1984b, «Bertso Bizkaitarrak (1688)», *ASJU* 18:2, 89-184.
- , 1985, «XVII. mendeko bulda bat bizkaieraz», in Melena, J. L. (arg.), *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*, UPV/EHU: Bilbo, 1045-1054.
- , 1986, «Bizkaiera Zaharra euskalkien artean», *ASJU* 20:3, 635-681.
- , 1996, *Refranes y Sentencias. Ikerketak eta edizioa*, Euskaltzaindia: Bilbo.
- , 1997, «Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri», *ASJU* 31:2, 447-535.
- , 1998, «Betolazaren hiztegia», in Knörr & Zuazo (arg.), 87-105.
- , 2004, «Juan Perez Lazarragakoaren eskuizkribua (xvi. mendea). Lehen hurbilketa», in Gipuzkoako Foru Aldundia, *Lazarragaren eskuizkribua*, Edilán-Ars Libris: Madril.
- & J. I. Hualde (arg.), 2006, *R. L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz* [*ASJU* 40:1/2], UPV/EHU: Bilbo.
- Mitxelena, K., 1955, «Betolatzaren dotrina. La doctrina cristiana de Betolaza (1596)», berrarg. in Knörr & Zuazo 1998: 485-501.
- , 1958, «Introducción al vocabulario de Landuchio», berrarg. in Knörr & Zuazo, 1998, 21-48.
- , 1964, *Testos Arcaicos Vascos*, [2. arg. 1990] *ASJU*ren Gehigarriak 11: Donostia.
- , 1977, *Fonética Histórica Vasca*, *ASJU*ren Gehigarriak 4: Donostia.
- , 1979, «Miscelánea filológica vasca III», *FLV* 32, 213-234.

- , 1981, «Lengua común y dialectos vascos», berrarg. in *PT*, 35-55.
- , 1987-2005, *Orotariko Euskal Hiztegia (15 liburuki)*, Euskaltzaindia: Bilbo.
OEH = Mitxelena 1987-2005.
- Salaberri, P., 1998, «Arabako mugako nafar hizkeren inguruan», in I. Camino (arg.), *Nafarroako hizkerak*, UEU: Bilbo, 49-87.
- , 2004, «Toponimia, Estellerriko euskararen argigarri», *Euskera* 49, 1127-1136.
- Sarasola, I., 1983, *Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*, [2. arg. 1990], *ASJU*ren Gehigarriak 11: Donostia.
- Tovar, A., 1980, *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*, Alianza: Madril.
- Ulibarri, K., 2010, «Viva Jesus dotrina: edizioa eta azterketa», *ASJU* 44:2, 41-154.
- Urgell, B., 2005, «Larramendirengandik baturaino: *antzina* eta *ahots*», in P. Etxeberria & H. Knörr, *Nerekin yaió nun. Txillardegiri omenaldia (Iker 17)*, Euskaltzaindia: Bilbo, 457-464.
- , 2006, «Para la historia del sustantivo verbal en vasco», in Lakarra & Hualde (arg.), 921-948.
- Urte, P., ca.1714, *Grammaire Cantabrique*, Interneten eskuragarri: <<http://www.memoria.digitalvasca.es/handle/10357/2105>> [Kontsulta eguna: 2011/09/23].
- Zuazo, K., 1998a, «Arabako euskara», in Knörr & Zuazo 1998: 125-189.
- , 1998b, «Betolazaren hizkera», in Knörr & Zuazo 1998: 71-86.
- , 2006, «Deba ibarreko euskara zaharra», in Lakarra & Hualde (arg.), 1005-1030.

Post scriptum

Artikulu hau prentsan zegoela G. Aldairen lan baten berri izan dugu (bibliografian gehitua, Aldai 2012), non Martin Portalen poemak islatzen duen hizkerari egozten zaien jatorri arabarra dudan jartzen duen. Ez gara hemen arituko Aldaik planteatzen dituen konparaketak eta euskal datu dialektalen ikuspegiak euskararen historia argitzeko dituen abantaila eta desabantailen gainean, baina Portalen testuak aztergai dugun poesiaren kokapenerako duen garrantziagatik ohar batzuk egiteari iritzi diogu. Aldairen konparaketan ezaugarri ezberdin bakoitzak duen pisua baloratzearen falta nabari dugu: adibidez, *egondu* (ez dugu uste lexikoari bakarrik dagokionik ezaugarri hau) edo *egin* trantsitiboko *irrealis* adizki bipertsonaletan erabiltzeak ezinezko begitantzen zaigu Gipuzkoako ipar-mendebalean XVIII. mende hasieran. Eta «XVII. mende hasiera» markatzea garrantzitsua da, datuen balorazio falta hau datuen ikuspegi kronologikoan nabaritzen baitugu gehienbat: esaterako, Muniberen testua erabili izana (XVIII. mende Erdikoa) Portalek erakusten duen txistukarien neutraltze egoerarekin konparatzeko, arrisksua bezain engainagarria iruditzen zaigu.

Hala ere, arazoak arazo, Portalen poesiaren gainean egiten duen azterketa eta kokatze ahalegina hemen dugun testuaren kokapenarentzat baliagarri zaigu. Gure poemak Portalen testuarekin du antzekotasun linguistikorik gehien, Aldaik aztertzen dituen ezaugarrietan bereziki; gainera, datuen aldetik bederatzi urteko aldea baino ez dago testu bien artean. Gure artikulua amaieran esan bezala, testu honek galdera sorta berriak sortzen dizkigu.